

HERNANIK kronika

2003 urtea
Urtarrilak 2
Osteguna
Alea: 657
www.hkronika.com

Kabalgata, Ipuin erakusketa eta kontzertuak, urtarrileko kultur aktibitate nagusiak

■ Galtzgorri elkartea Euskal Herriko eta beste herrietako ipui biltzaileen lanak jarri ditu Biterin ■ Música Bandak, Trieb taldeak eta Etzakit taldeak kontzertua emango dute.

EGUBERRI bueltak aurten ere kultur agenda betea ekanri du. Santo Tomas aurre horretatik hasi eta gaur arte 30 kultur ekitaldiak gora izan dira Hernanin.

Urtarrila lasaiago dator entzu horretan, baina, badiar bai era ezberdinak kultur ekitaldiak. Egun hauetan, jende asko bildu ohi duen ekitaldia Erregeen kabalgata da. Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek iaz ez zuten Hernanira iristeko modurik izan, baina, aurten herriko kaleetan barrena ibilikio dira ume askoren pozerako. Arratsaldeko 16:00etan joango dira Sandiusterria, eta 18:00etan ibilikio dira herrian barrena.

Ipuiek arrakasta

Urtarrilean ipuiek ere leku berezia izango dute Hernaniko kultur agendan. Galtzgorri taldeak erakusketa jarriko du Biterin hilaren 7tik 31ra bitartean. Biterin Euskal Herriko eta beste herrietako ipui biltzaileen

lanak ikusi eta gozatzeko aukera izango da. Hernanin ipuiek lotutako ekitaldiak arrakasta haundia dute. Liburutegian umeentzako ipui emanaldi asko egiten dira urtean, eta beti biltzen da jende asko. Urtarrilean Lur Korta izango da Biterin ipui kontari. Bestalde, azaroan ipuiek konstatzen ikasteko ikastaroa jarri zen martxan eta horrek ere arrakasta haundia du.

'Etzakit' taldeak azken kontzertua larubatean

Urte berriak agur gustoa ere utziko du Hernanin. Hilabete honetan Musika Bandak, Trieb taldeak eta Etzakitek kontzertua emango dute herrian, eta Etzakit taldearena azkenengoa izango da. Kontzertua larubatean da Oialmen. Bertsolaritzak ere badu bere tartean urtarrilean. Martindegia urtero egiten da bertso afaria eta aurten Oiarbidean egingo da 11ean. San Sebastian bueltan, berriz, Tabernetako txapelketa. □



Erregeak aurten Hernanin izango dira urtarrilaren 5ean.



Etxabe eta Altuna II atzo ezin izan zuten partidua errematatu.

Tenerife negoak
ZOZKETA : 2 pertsonentzako ASTEBETEKO BIDAIA 50 euroko erosketagatik boleto bat.

YONE
boutique
Kale Nagusia 63
Hemen erosiz Tenerifera joan zaitezke.
AZKEN 4 EGUNAK
Zozketa: "Niño" loteria azken 3 zenbakiekin.

PASA
CALARRETA FRONTOIA
FRONTOIA
CALARRETA
ALAI

GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

- ① 1. partidua: IRIBAREN - ETXEERRIA II / MATXAIN III - AIZPURUA
- ② 2. partidua: ALTUNA II - AIZPURU / ZEBERIO II - TXIKURI
- ③ 3. partidua: ALTUNA I - J. ETXEERRIA / BITORIA-ETXABE
- ④ 4. partidua: SARASUA-BADIOLA / ZEBERIO I-URKO

PUBLIKOAN HITZ EGITEKO IKASTAROA

Bihar azken eguna izen emateko

ONGINTZAKO Berdintasun Sainak ikastaroa antolatu du emakumeentzat, jende aurrean hitz egitea eta taldean parte hartzea bultzatzen. Ikastaro horretan izen emateko epea bihar bukatuko da, ostiralean. Ikastaroa urtarrilean eta otsailean egingo da eta astearteetan izango da. Hala ere, bi ordutegi egongo dira aukera: 14:30etaka, eta 19:30etaka. Izena emateko: 943-557854. □

Xakea umeentzat

XAKE elkartea eta Kirol Patro-natuak antolatuta, umeek xakean ibiltzeko aukera izango dute gaur goizean. Partidak 09:30etan hasiko dira, kiroldegian.

3/4 PLATAFORMA


Kontzentrazioa gaur

HIRULAURODEN plataformak kontzentrazioa deitu du gaurko kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak libre uztea eskatzeko. Kontzentrazioa Plaza Berrian da, 19:00etan. □

■ BOLA

Jose Mari Zelarain onena Herreran

IGANDEAN bola txapelketa izan zen Herreran eta Jose Mari Zelarain hernaniarra gelditu zen aurrena, 33 brila botata. Bigarren, Arroyo gelditu zen; hirugarren, Lazcano eta laugarren Arrozpide; Horiek hirurak ere 33na brila botatua zituzten. □



Gizon bat hil zen atzo Adarra mendian, eta beste bi pertsona zauritu ziren Hernanin istripuan

ATZO eguerdian pertsona batek bizia galdu zuen Adarra mendian paseatzan zibilela. Oraindik erabat gauza garbirik ez badago ere, itxura denez P.M.U.ri ondoeza egin zitzzion eta kolpean hil zen, Hernaniko Udaltzaingoak eta Ertzaintzak emandako datuen arabera.

Bestalde, atzo goizeko 09:30ak aldera istripua izan zen Hernanin, Galarretatik Errekalerako bidean. Donostiako matrikula zuten bi Volks-wagen Polok elkar jo eta kotxe bateko bi pertsona barruan harrapatuta gelditu ziren. Kotxean zijoaztenak bi neska gazte ziren eta bonberoek atera

behar izan zitzuten kotxetik. Biak ospitalera eraman zitzuten nahiko larri zaurituta. Ertzaintzak atxilotu egin zuen beste kotxeko gidaria. Ez Ertzaintzak eta ez Udaltzaingoak ez dute oraindik argitu istripuan zauritutako bi pertsonak eta atxilotuta eramandakoa hernaniarrak diren. □

BERTSOLATA BUKATU DA



Urte Zaharreko errondako taldea, Zumitza parean saioa eginda.

Bertso saio ederra Sandiusterrin, eta erronda animatua

BERTSO jaialdi ederra izan zen igandean Sandiusterri aretoan. Urdangarin, Egaña, Unai Agirre, Peñagarikano, Mendiluze eta Sarriegi aritu ziren kantari, eta giro ederra jartzeaz gain ale eder askoak ere bota zituzten. Entzule

aldetik, iaz txapelketa ondoren frontoian izan zen betekadarik ez da izan aurten, baina Sandiusterri dezente itxuratu zen eta publikoak gogotik jo zuen txalo.

Bestalde, asteartean, Urte Zaharreko erronda egin zen,

Ohitura Zaharrak abesbatzak antolatuta. Urtero bezala, bertsolari eta kantariekin herria girotu zuten beren kantu eta bertsoz. Urtero izaten da giro ederra, baina, aurten animo berezia ikusten zen taldean eta kantuaren antzeman zen hori. □

Latsunbeko auzo elkarreka umeentzako ekitaldiak antolatu ditu gaur eta biharko

LATSUNBEKO Iturritxo auzo elkarreka umeentzako aktibitateak antolatu ditu gaur eta biharko goizerako. Ekitaldiak auzo elkarreko lokalean izango dira, goizeko 10:30etik eguerdiko 12:30etara. □



Latsunbeko umeak marrazten Iturritxoko lokalean.



JENDAURREAN HITZ EGITEKO IKASTAROA
“Taldean partehartza eta jende aurrean hitz egitea lantzeko”.
Emakumeei zuzendua
Urtarrila eta otsailean: Asteartetan Bi ordutegi: 14:30 - 16:30
19:30 - 21:30
Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: Urtarrilaren 3a
LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
“Berdintasun Kontseiluaren Logoa”

Oinarriak eta informazioa:
Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.: 943 55 78 54



Urdin
Poltsa, lepoko, pitxi, lumin eta abar
falia eta Parisko azken moda, Olentzero eta erregeetako zure opariantzako.
URTE BERRI ON DENORI.

■ BOLEIBOLA

Esther Lopez hernaniarra jokalari onena Nazioarteko Boleibol txapelketan

ASTEBURUAN 16garren Nazioarteko Boleibol txapelketa jokatu zen Sestaon. Aurreneko mailako lau talde izan dira txapelketan: Panatinaikos, Estrella Roja, Tenerife eta Republika Dominikana. Esther Lopez boleibolari hernaniarra Tenerifen jokatzen du eta berak irabazi zuen txapelketako jokalari onenaren saria.

Txapelketako finala Republika Dominikana eta Tenerifek jokatu zuten, eta Esther Lopezek publikoa ia lehertzeko zorian jarri zuen. Hernaniarrak sekulako partidua egin zuen eta berak jaso zituen txalorik haudienak. Bere taldeak, Tenerifek, 3-0 irabazi zuen finala,



Esther Lopez bobeibol jokalaria.

tatik ezin ondorio positiborik espero”.

Andoingo txapelketako emaitzak

Hernanik Andoingo Torneoia irabazi zuen asteburuan, baina, kadete eta jubileietan ere izan ziren Hernaniko taldeak Andoingo torneoan. Jubilen nesketa Hernanik irabazi egin zuen eta kadete nesketa bigarren postuan gelditu zen. Partiduak Hernaniko kirolegiak jokatu ziren eta giro polita izan zen. Hona hemen hernaniaren emaitzak.

Kadete neskak:

Langile-Hernanik 2/Carambo-Zaragozak 0; Langile-Hernanik 1/Leitzaran-Andoainek 2; sailkapenean, aurrena Andoain, bigarren Hernani eta hirugarren Zaragoza.

Jubilen neskak:

Hernanik 2/Zaragozak 0; Hernanik 2- Andoainek 1; sailkapenean, aurrena Hernani, bigarren Andoain eta hirugarren Zaragoza. □

Kronikako kalendarioa

Zure kioskoan, 2 euroan

HERNANI 2003



URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA
1 2 3 4 5	1 2	1 2	1 2 3 4 5 6
6 7 8 9 10 11 12	3 4 5 6 7 8 9	3 4 5 6 7 8 9	7 8 9 10 11 12 13
13 14 15 16 17 18 19	10 11 12 13 14 15 16	10 11 12 13 14 15 16	14 15 16 17 18 19 20
20 21 22 23 24 25 26	17 18 19 20 21 22 23	17 18 19 20 21 22 23	21 22 23 24 25 26 27
27 28 29 30 31	24 25 26 27 28	24 25 26 27 28 29 30	28 29 30
MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA
1 2 3 4	1	1 2 3 4 5 6	1 2 3
5 6 7 8 9 10 11	2 3 4 5 6 7 8	7 8 9 10 11 12 13	4 5 6 7 8 9 10
12 13 14 15 16 17 18	8 9 10 11 12 13	11 12 13 14 15 16	11 12 13 14 15 16